

## BESTELAKO XEDAPENAK

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 1800

*AGINDUA, 2022ko martxoaren 23koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Azterlan izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa.*

2021eko abenduaren 28an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación Azterlan izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Fundazioaren patronatuak 2021eko abenduaren 23an erabaki zuen aldaketa, eta publikoa egin zen 2021eko abenduaren 28an, Bilbon, Álvaro Rodríguez Santos notarioaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1.930), notario beraren aurrean 2022ko otsailaren 10ean egiletsitako beste baten bidez zuzendua (protokolo-zenbakia: 144). Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Dokumentazio horren arabera, 37. artikulua, zatitzeko araei buruzkoa, eta 40. artikulua, soberako ondarearen likidazioari eta destinoari buruzkoa, aldatu egiten dira, zentro teknologikoak eta berrikuntza teknologikoari laguntzeko zentroak arautzen dituen abenduaren 19ko 2093/2008 Errege Dekretuan aurreikusitako eskakizunetara egokitzeko.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau Agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorritz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta,

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Fundación Azterlan izeneko fundazioaren estatutuen 37. eta 40. artikuluen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, agindu honen datarekin, Álvaro Rodríguez Santos notarioaren aurrean 2021eko abenduaren 28an eta 2022ko otsailaren 10ean egiletsitako eskritura publikoetan aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakiak: 1.930 eta 144, hurrenez hurren).

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

2022ko apirilaren 27a, asteazkena

**AZKEN XEDAPENA**

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioket Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 23a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.